

---

# TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN PLANA

---

2 0 2 1 - 2 0 2 4



Tolosako  
Jaien  
Berdintasun  
Behatokia



---

10

SARRERA

**Tolosako Jaien Berdintasun  
Behatokiak eginiko I. Plana**



20

PLANAREN  
TESTUINGURUA:  
NONDIK GATUZ

**Urrats garrantzitsua**



PLANAREN  
AZALPENA: NOLA  
IRAKURRI PLANA?

30



PLANA  
**Ardatzak, arloak eta helburuak**

40

---

# 10

## SARRERA

Dokumentu hau Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiak eginiko I. Plana da. **Plan honek 2021-2024 epealdirako Behatokiaren ipar izan nahi du**, azken urteetako lana eta ikasitakoetatik abiatuta hurrengo urteetako jarduna modu ordenatu batean jasotzeko saiakera da. Hau da, **azken urteetako jardunaren ondorioz sortutako jakintza eta egiteko moduen pilaketa da**. Eta bereziki San Joan jaietako txostenetan 2017tik 2019ra egiten diren hobekuntzetarako proposamenetan oinarritu da, urte horietan txostenetan jaso diren proposamenak biltzen baititu. Hala, 2020an egin zen Inauterien azterketan proposatzen ziren ekintzak ere jaso dira. Beraz, plana San Joan jaietan zentratu da baina jai horietatik haratago joateko espiritua du.

Plana Behatokiarentzako tresna bat bezala eraiki da, ez erraminta zentral gisa, baizik eta tresna bat gehiago bezala. Esan bezala, tresna honek **orain arte egindako proposamen guztiak ordenatzeko eta estrategia ordenatu bat jasotzeko tresna bat da**, baina Behatokiak, bestelako erramintak eta metodologiak ere indarrean ditu eraldaketa bultzatzeko.

Horretaz gain, aipatu behar da plan hau **ezin dela zeozer itxia bezala ulertu**. Azken finean, jaiak eta gizartea urtez urte aldatzen diren bezala planak ere aldaketak izan ditzake, beraz, egoeretara Plan hau **malgua izango da eta egokitzeko gaitasuna izango du**. Horregatik, 2021an egin den arren, urtez urte planak moldaketak jaso ahalko ditu.



# 20

## PLANAREN TESTUINGURUA: NONDIK GATZ

Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiarentzat urrats garrantzitsua da I. Plan hau. Hala ere, esan bezala, **urtetako lanaren ondorio eta emaitza da**. Garrantzitsua da gogoraraztea nondik gatozen, Plan hau jai berdinzaileen bidean urrats bat gehiago dela ulertzeko.

Tolosak urteak daramatza jaiak berdinzaileak bihurtzeko lan egiten, bai indarkeria matxistaren esparruan (jaietan oinarritutako sentsibilizazio-kanpainak, indarkeriaren aurkako protokoloak, eta abar), bai beste eremu batzuetan (Berdintasun Ordenantza eta berdintasun-planak, non jaien gaia jasotzen den, emakumeak jai-jardueretan integratzeko babesa ematen, ...). 2010ean proiektu osoago bat martxan jarri zen emakumeen parte hartzea eta ikusgarritasuna handitzeko markoan. Urte hartan jaien eta jaietan garrantzi handia duten Elkarte Gastronomikoetan gizon eta emakumeen berdintasunerako ibilbidea abiatu zen. Urte hartatik aurrera, urtez urte, gai honen bueltan hainbat pauso ematen joan dira jaietan parte hartzen duten eragile instituzional eta herritar askorekin.


**2016an**, urtetako lanen ondorioz, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren oinarriak sortu ziren eta 2017ko San Joan jaien azterketa eta txostenarekin abiatzen da.

**Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia Tolosako Udaleko Berdintasun eta Jaietako sailen arteko elkarlanaren bitartez sustatzen da** eta bere helburua jai berdinzaileago batzuen bidean poliki, baina eten gabe, urratsak ematen joatea da. Eta azken 5 urteetan hainbat ekintza eta pauso garrantzitsu eman ditu, hala nola, urteroko jai berdinzaile batzuentzako txostenak, eragile, herritarrekin eta udal teknikari eta zinegotziekin sentsibilizazio saioak, musika eskolan berdintasun formakuntza, arlo ezberdinetarako (musika kontratazioetarako, txupinazoa aukeratzeko, komunikazioa) berdintasun irizpideen sorrerak, Inauterietako Berdintasun Saria, Larramendiko jai batzordearekin hartu emanak eta jaien azterketa, hainbat eragileekin lankidetzarako sinergiak<sup>1</sup>, etabar.

**Lan honen jarraipen eta emaitza gisa, 2021an Behatokiarentzako PLANA sortzea erabaki da**. Plan honek udal sail guztien oniritzia izan du, hain zuzen ere, Politiko teknikoen sentsibilizazio saioan kontrastatu eta zuzendu egin zelako eta hainbat sailekin (Kirola, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Musika eskola... ) banakako bileren bitartez plana osatzen eta berresten joan da, denen adostasuna lortu arte.



<sup>1</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/INAUTERIAK%202020\\_11\\_11%20AZTERKETA\\_eu.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/INAUTERIAK%202020_11_11%20AZTERKETA_eu.pdf) 29. Orrian orain arteko sinergia esanguratsuenak zerrendatzen eta azaltzen dira.



# PLANAREN AZALPENA: NOLA IRAKURRI PLAN HAU?

Plan hau 4 urteetarako pentsatuta dago, hau da, 2021etik 2024 arte. Plana ardatzetan, helburuetan, arloetan eta ekintzetan banatzen da. Eta bere baitan ardurak eta epeak jaso dira.

Planak honako 4 ardatz hauek ditu:

**1. BEHATOKIAREN EGINKIZUNAK ETA ANTOLAKUNTZA MODU SISTEMATIZATU BATEAN GARATU**

**2. TOLOSAKO JAIEN ANTOLAKUNTZA BERDINZALEAGO BATERANTZ**

**3. TOLOSAKO JAIETAKO JARDUERETAN GENERO IKUSPEGI KRITIKOA TXERTATU**

**4. DENOK GOZA DEZAGUN, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO JAIAK**

Ezarritako 4 ardatzez gain, plan honek, tresna irekia izateko duen nahitik abiatuta, PROPOSAMENEN KUTXA atal ere badauka. Atal honen helburua hurrengo urteetan sortzen diren proposamenak jasotzen joatea da, sor daitezkeen proposamen berriei leku egitea. Gainera, jaietan inplikazioa duten udal sail edo eragile ezberdinei propositiboak izateko gonbite zuzena egiten die irekitako kutxa honek, planak dituen arlo eta helburuei jarraikiz sail eta eragile bakoitzak aurrera eraman ditzakeen ekintzak pentsatu eta proposatzeko.

Plana aurkezten den momentu honetan Kirolak eta Musika arloko hainbat proposamen soilik jasotzen dira, hala ere, eredu gisa balio dutela uste da eta beste sailak ere sail hauek eginiko ariketa egitera animatzeko balioko duela.

Proposamenen kutxako ekintzak, izenak berak dion lez, aurrera eraman daitezkeen proposamenak dira, aurrera eraman daitezkeenak edo ez, baina hor daudenak. Izan ere, lehenago aipatu den bezala, plan hau 4 urteetarako pentsatuta dago, beraz, hemen jasoko diren proposamenak 4 urte hauetan egin daitezkeen ekintzak izango dira. Jakin badakigu batzuetan egoerak ekintza bat espero dena baino arinago burutzea ekarri dezakeela eta ondorioz helburuan sakontzeko abagune ederra ahalbidetzen da, edo alderantziz, aurreikusita zegoen ekintza egokia ez izatea ikusten da eta helburua betetzeko beste ekintza bat egokiagoa izango dela baloratzen dela. Horrelako egoeren aurrean erantzuteko asmoarekin sortu da Proposamenen Kutxa, hau da, helburuetan gehiago sakontzeko, beste estrategia egokiagoa delako... atal honetara jo ahal izateko ekintza eta ideia gehiagoren bila.

Bestalde, aipatu behar da, plan hau urteetako jardunaren ondorioenez bertan jasotzen diren ekintzetako asko jada egiten direla edo martxan daudela. Horregatik, horrela den kasuetan, arrosa kolorez markatu ditugu<sup>2</sup>.

Plana Behatokiaren tresna bat da, hau da, Tolosako Udalak herriko jaiak berdinzaleak bihurtzeko gida orri bat, baina ez da horretan gelditu nahi. Azpimarratu den bezala plan hau bizirik egon nahi du indarrean egongo den urte hauetan eta horretarako Behatokiak kanpora eta barrura sortutako sinergi guztietatik elikatuko da plana osatzen joateko.

Honetaz gain, aipatu behar da Behatokiak kanpo laguntza eta aholkularitzaren babesa duela, ondorioz plan honek, beharra dagoenean, bidelaguntzaz aprobetxatuko da ekintzak burutzeko orduan.

<sup>2</sup> <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jai-berdinzaleak>

# NO PLANA

## 1. ARDATZA

# BEHATOKIAREN EGINKIZUNAK ETA ANTOLAKUNTZA MODU SISTEMATIZATU BATEAN GARATU

Ardatz honetan Behatokiaren eginkizunak eta antolatzeke moduak jasotzen dira. Ardatz honen helburua orain arte egiten diren jarduerak modu sistematizatu batean egiten direla bermatzea da eta bestaldetik, oraindik egiten ez diren gauzak modu organizatu batean egiten hastea da.

## ARLOA 1.1. Behatokiaren eginkizun nagusiak sistematizatzea

**HELBURUA 1.1.1.** Tolosako jaiak berdintasun ikuspegi batetik aztertzeke informazio sistema elikatzeke datuak biltzen direla bermatu eta datuen azterketa urtero egitea.

<b>A_ Urtero, Tolosako jaiak berdintasun ikuspegi batetik aztertzen dituen txostena egin.</b>	Berdintasun saila		Informazioa bildu / sortu	2021-2024
<b>B_ Jaietan elkarte eta bestelako eragile pribatuek antolatzen dituzten kirol jardueren inguruko informazioa bildu kirol fitxa bitartez jaso eta txostenean sartu.</b>	Kirola saila	Berdintasun saila	Informazioa bildu / sortu	2022-2024
<b>C_ Musika arloko ekintzetan emakumeen parte hartzea kuantitatiboki neurtzeke erabiltzen diren tresnak aplikatu eta txostenean jaso.</b>	Jaiak saila / Berdintasun saila		Informazioa bildu / sortu	2022-2024
<b>D_ Udalak antolatzen dituen kirol jardueren inguruko informazioa biltzen jarraitzen galdetegi bitartez eta emaitzak txostenean jasotzen jarraitu.</b>	Kirola saila	Gazteria saila eta Topagunea / Jaiak saila / Berdintasun saila	Informazioa bildu / sortu	2022-2024
<b>E_ Inauterietako epaimahaiaren berdintasun iritzia jasotzeke galdetegia pasa eta txostenean jaso.</b>	Jaiak saila	Berdintasun saila	Informazioa bildu / sortu	2022-2024
<b>F_ Emakumeek eta gizonek Inauterietako karrozetan eta konpartsetan duten parte-hartzearen inguruko datuak jaso eta txostenean txertatu.</b>	Jaiak saila	Berdintasun saila	Informazioa bildu / sortu	2021-2024
<b>G_ Jai bileretan parte hartzaileen hitza kuantifikatzeke tresna erabili, genero analisisa egin eta txostenean jaso.</b>	Berdintasun saila	Jaiak saila	Informazioa bildu / sortu	2022-2024

**HELBURUA 1.1.2.** Tolosako jaiak berdintasun ikuspegi batetik aztertzeke erabiltzen den informazio sistema progresiboki hobetu, zabaldu eta aberastu.

<b>A_ Urtero, behatokiko informazio sistemaren datuak lortzeko erabiltzen diren tresnak baloratu eta beharrezkoa bada, hobekuntzak txertatu.</b>	Berdintasun saila / Jaiak saila		Ebaluatu/ Hobetu	2021-2024
<b>B_ Udal arlo ezberdinekin egiten diren urteko elkarrizketak egiten jarraitu eta beste arlo batzuetara zabaldu eta adosten diren proposamenak baloratu planean txertatzeko.</b>	Jaiak saila / Berdintasun saila	Udal sailak	Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>C_ Urtero eta beharraren arabera, jai feministen bidean beharrezkoak diren tresnak, ekintzak etabar, sortzen jarraitu.</b>	Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

**HELBURUA 1.1.3.** Behatokiaren filosofia, helburuak eta emaitzak ezagutzera eman eta balioan jarri Tolosako erakunde, eragile eta biztanleen artean. Behatokia jai berdinzaleen aldeko erreferentia bilakatu.

<b>A_ Herri mailan Jaiak eta Berdintasunaren gaia lantzeko estrategikoak diren erakunde, espazio edo eragileak identifikatu eta hauekin urtean behin biltzea Behatokiaren lana azaltzeko eta bere ekarpen edo ideiak jasotzeko.</b>	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>B_ Udal barruan Behatokiaren lana urtero arlo guztietara zabaldu eta arloen arteko sinergiak eragin.</b>	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>C_ Jabetze Eskolan behatokiaren emaitzen berri eman eta beraiekin hurrengo epealdirako lanketa egin tailer, ikastaro edo hitzaldi formatu batean.</b>	Berdintasun saila		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>D_ Jaien antolakuntzan Behatokia bisibilizatu eta errekonozimendua eman.</b>	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

## ARLOA 1.2. Behatokiaren egitura eta antolakuntza sistematizatu

**HELBURUA 1.2.1.** Behatokiaren jardueraren jarraipena egin eta udal mailan egindakoaren kontu emateko mekanismoak definitu.

<b>A_ Berdintasun Kontseilutik Behatokiaren jarraipena egin, horretarako lantalde bat izendatu.</b>	Berdintasun Saila / Berdintasun Kontseilua		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>B_ Herritarrek Batzordean Behatokiaren baitan jaiak eta berdintasun arloan egiten den lana azaldu. Jaien antolakuntzan zein irizpide jarraitu behar diren eta zeintzuk diren lehenetsunak aurkeztu.</b>	Kultura eta Jaiak saila	Berdintasun saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_ Udal teknikari eta zinegotzi guztiei Behatokiaren emaitzak aurkezteko urtean behineko sentsibilizazio saioa egitea.</b>	Berdintasun saila	Sail guztiak	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024



**HELBURUA 1.2.2.** Behatokiaren berri emateko estrategia komunikatibo bat lantzea.

<b>A_</b> Komunikazio plana osatu.	Berdintasun Saila / Berdintasun Kontseilua		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>B_</b> Behatokiaren logoa sortzea, erakunde, eragile eta biztanleek identifikatzeko eta erreferentzialtasuna lortzeko.	Berdintasun Saila / Berdintasun Kontseilua		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_</b> Behatokia Udal kanpoko hedabideekin harremanak sustatu, egiten duen lana sozializatzeko.	Berdintasun Saila / Berdintasun Kontseilua		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>D_</b> Udal komunikazio kanalak erabili Behatokia eta egiten duen lana sozializatzeko. Adibidez, urteko behatokiko emaitzak udal webgunean zintzilikatu, prensa oharrak, udal aldizkarian monografikoak.	Berdintasun Saila / Berdintasun Kontseilua		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

**HELBURUA 1.2.3.** Behatokiko sistema osatzen jarraitu, ebaluatu, egokitu eta egonkortu.

<b>A_</b> Behatokiaren inguruko erabaki nagusiak hartzeko eta urteko plangintza definitzeko taldea (berdintasuna eta jaiak) egonkortzen jarraitu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>B_</b> Orain arte Behatokian elkarlanean dauden arloen arteko harremana ebaluatu, sistematizatu eta egonkortu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Ebaluatu/ Hobetu	2021-2024

**HELBURUA 1.2.4.** Antolakuntzaren arteko sinergiak landu eta sisteman txertatu.

<b>A_</b> Orain arteko kanpo eta barruko sinergiak zaindu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>B_</b> Udal barruan eta kanpoan sinergia berriak bilatu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024





## 2. ARDATZA

# TOLOSAKO JAIEN ANTOLAKUNTZA BERDINZALEAGO BATERANTZ

Ardatz honetan jaietako hezurduran eragiteko pentsatuta dago, hau da, jaien antolakuntzan. Hau da, jaiak eraldatzeko jaiak pentsatzen eta ekiten diren eremuan eragin behar da.

## ARLOA 2.1. Jaien antolakuntzan genero ikuspegia txertatu eta bide honetan egindako lanekin jarraitu eta sakondu

**HELBURUA 2.1.1.** Jaiak edo ekintzak antolatzeko bileretan edo espazioetan gizon eta emakumeen parte hartze orekatua eta anitza lortzea.

<b>A_</b> Jaiak antolatzeko bileretan sortzen den udal dokumentazio guztietan (aktak, erregistroak...) parte hartzaileen izena, ordezkaten duen elkarte, adina eta sexua agertzea emakumeen parte hartzea neurtu ahal izateko.	Jaiak saila		Informazioa bildu / sortu	2022-2024
<b>B_</b> Jaiak antolatzeko bileretara ordezkariak bidaltzen dituzten elkartei ordezkariak parekidea bidali dezaten gomendatzea bilera deialdi bakoitzean.	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>C_</b> Tolosan ikuspegi feministarekin lan egiten duten elkarte edo taldeak identifikatu eta Jai bileretan parte hartzera gonbidatu. Ezingo balute parte hartu, ezin horren arrazoiak identifikatu eta beraien iritzia beste bideetatik jasotzen dela ziurtatu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>D_</b> Tradizionalki feminizatutako egon diren elkarteak, arloak, eta abar, jaien antolakuntzarako bileretara edo espazioetara gonbidatu. Ezingo balute parte hartu, ezin horren arrazoiak identifikatu eta beraien iritzia beste bideetatik jasotzen dela ziurtatu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>E_</b> Jaien antolakuntzan ohikoak ez diren elkarteak (razializatuak, Guraso Elkarteak, zaurgarrien aldeko elkarteak, eta abar) identifikatu eta jai bileretara gonbidatu. Beti, ordezkariak parekidea izan dadila proposatu.	Arlo guztiak		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>F_</b> Jaietan edozein ekintza antolatu nahi edo antolatzen dituzten eragileak jai bileretara gonbidatu beraien ekintzaren berri emateko.	Arlo guztiak		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>G_</b> Udalak edo Jai bileretan epaimahaiak parekideak izateko irizpideak eta baliabideak eman.	Arlo guztiak		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

**HELBURUA 2.1.2.** Jai bileretan genero analisiaren inguruko hausnarketa sustatzea, jaiekin lotutako erabaki guztietan zeharkako eragina duela ikusaraziz, eta berdintasunari lotutako gai desberdinak bileretan modu iraunkorrean landu.

<b>A_</b> Dagoeneko Udalak jaiak berdinzaleak izateko bidean adostu dituen irizpideak (musika, txupinazoa, eta abar) eta hartu dituen erabakiak jai bilerako eragile guztiei sozializatu, ahoz eta idatziz kopia bat emanez lehenengo bileran.	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>B_</b> Indarkeria jai bileretan landu beharreko puntu iraunkorra bihurtu. Hausnarketa kolektiboaren bidez landuko da eta indarkeria matxista jaietan prebenitzeko parte hartzaileek dituzten proposamenak eta ideiak bilduko dira.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Gizarte zerbitzuak	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>C_</b> Eraso matxisten kontrako protokoloa jai bileretan eta jaiak antolatzeako bestelako bileretan aurkeztu eta azalduko da urtero.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Gizarte zerbitzuak	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>D_</b> Jaien ebaluazio bileran genero hausnarketa puntua txertatu.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Gizarte zerbitzuak	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>E_</b> Jaietako ekintzak berdintasun ikuspegitik ebaluatzeako fitxa bat sortuko da. Fitxa hau aldez aurretik ze ekintzei edo eragileei pasako zaien adostuko da.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Ebaluatu / Hobetu + Informazioa bildu	2021-2024

**HELBURUA 2.1.3.** Jaietan ekintzak antolatzen dituzten eragile guztiak berdintasuna eta genero ikuspegiaren formatu eta sentsibilizatu.

<b>A_</b> Gazte Topaguneko ekintzetan parte hartuko duten hezitzaile guztiei hezkidetzaren formazioa eskatzen jarraitu.	Gazteria Saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>B_</b> Feminismoan formakuntza eskaini jaietan kontratatzen den edozein erakunderi.	Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>C_</b> Jaietako eragileei indarkeria matxistaren inguruko formazioa emango zaie, erasoak identifikatzeko eta eraso baten aurrean baliabideak izateko. Urtero erabakiko da ze eragileek jasoko dute prestakuntza.	Berdintasun Saila	Gizarte zerbitzuak	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>D_</b> Jai bileretan guztietan "Jaiak Berdinzaleago bihurtzeko gida" eramango da eta eragileen artean banatuko da. Eta egiten diren deialdietan, korreoz eta udal prentsa oharretan jaiak gida erantsiko da.	Jaiak saila / Komunikazio saila	Berdintasun saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>E_</b> Jai bileretan edo antolakuntza espazio instituzionalizatuaren parte hartzen ez duten eragileei urtero jai berdinzaleen aldeko gida banatu.	Berdintasun Saila	Jaiak Saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>F_</b> Jai bileretan edo antolakuntza espazio instituzionalizatuaren parte hartzen ez duten eragileei (txosnagunea etabar) jaiak berdinzaleak egiteko formazioak edo bestelako tresnak eskaini.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>G_</b> Jaietarako azpikontratatzeko diren enpresei Berdintasun sailetik berdintasunaren inguruko sentsibilizazio formakuntza eskeintzea.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>H_</b> Musika eskolan burutzen ari diren irakasleentzako musika eta generoaren inguruko sentsibilizazio formazioarekin jarraitu eta ahal den neurrian beste subjektuei zabaldu, emakume musikarien partaidetza hazteko.	Berdintasun saila / Gazteria saila / Musika eskola		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

## ARLOA 2.2. Jaiak sostengatzeko beharrezko den zaintzaren etika eta praktika jaien antolakuntzan txertatu

**HELBURUA 2.2.1.** Zaintza lanen banaketa desorekatuak jaien antolakuntzan emakumeen parte-hartzean daukan eragina neurtu eta txikitzeko neurriak hartu.

A_ Jaietan parte hartzen duten kolektibo eta talde desberdinekin batera jaietan eta jaien antolakuntzan elkar zaintzarako dekalogo bat sortu eta ezagutzera eman.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2024
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------	----------------------------------------------------------	------

**HELBURUA 2.2.2.** Zaintza lanen banaketa desorekatuak emakumeen parte-hartzean izan dezaketen eragina neurtu eta hura txikitzeko neurriak diseinatu.

A_ Zaintza ardurak izateagatik inor jaietaz gozatu gabe gera ez dadin udaletxetik hausnarketa garatu eta hartu ahal daitezkeen neurriak identifikatu.	Berdintasun saila/ Jaiak saila	Neurria / Esku Hartzea	2024
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------	------------------------	------

## ARLOA 2.3. Jaien antolakuntza indartu

**HELBURUA 2.3.1.** Jaiak gaurkotu ikuspegi feminista txertatuz.

A_ Jaiak indartzeko asmoarekin, jaien antolakuntza eta ereduaren inguruko hausnarketa kolektiboa sustatu. Parte-hartzea eta generoa zeharkako irizpideak izango dira.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Neurria / Esku Hartzea	2024
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------	------------------------	------



## 3. ARDATZA

## TOLOSAKO JAIETAKO JARDUERETAN

## GENERO IKUSPEGI KRITIKOA TXERTATU

Jaiak berdinzaleak izan behar direla adierazten dugunean dagoenarekin ariketa kritikoa egitera behartuta gaude, eta horretan datza ardatz hau, jai feministak eraikitzea baina lanketa kritikoa batetik abiatuta.

### ARLOA 3.1. Tolosako jaietan genero estereotipoak hautsi eta heteroarauetik kanpo kokatzen diren erreferente eraldatzaileak bultzatu

**HELBURUA 3.1.1.** Tradizionalki maskulinoak diren jardueretan dagoeneko emakumeak parte hartzen duten jarduerak antolatu, birformatu, tresnak sortu eta balioetsi, erreferenteak izan daitezten.

<b>A_</b> Kirol arloan disziplina ezberdinetako emakume kirolariak ikustarazteko ekintzak antolatu jaietan (gizon eta emakumeen txapelketak parekatu, tradizionalki gizonekoak nagusitu izan diren disziplinetan emakumeen parte hartzea sustatu eta bultzatzeko ekintzak egin...)	Kirol saila		Jaiak saila / Berdintasun saila / Froga antolatzen duten enpresa edo sponsorrak	2021-2024
<b>B_</b> Emakumeek jaietako jardura gastronomikoetan duten parte hartzea handitu eta rol anitzagoak izan ditzaten sustatu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2023
<b>C_</b> Musika arloan emakumeen aukera berdintasuna bermatzeko dauden irizpideak aplikatu eta iraunkorki balioetsi berrikusi eta beharrezkoa bada egokitu.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>D_</b> Amarotz entsegu lokalak eskuratzeko araudian edo klausuletan emakumezkoak lehenezteko irizpidearekin jarraitu.	Gazteria saila		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

**HELBURUA 3.1.2.** Jaietan ohikoak ez diren jardura berriak txertatu eta balore maskulinoen logikatik ateratzen diren formatuak sustatu.

<b>A_</b> Jaietan presentziarik ez duten kirola jarduerak jaietan ekintzak antolatzera animatu, hala nola, kiroldegian egiten diren beste kirol batzuk (spinning, aerobic, edo bestelako kirolak -arrauna, boleibola-, eta abar.)	Kirol saila		Berdintasun saila / Jaiak saila	2022-2024
<b>B_</b> Jaietan presentzia gutxi dituzten kirolak edo kirol jolasak antolatzen jarraitu, hala nola, piragua gazteentzako edo erronka jolasak.	Gazteria saila		Topagunea	2022-2024
<b>C_</b> Aisialdi, natura eta kirol jarduerak antolatzen dituzten elkarteekin jardura berritzaileak sortzeko estrategiak pentsatzen hasi.	Kirol saila		Gazteria saila / Berdintasun saila / Jaiak saila	2022
<b>D_</b> Horren estereotipatuak ez dauden kirol edo jarduerak (piraguismoa, orientazio probak, ..) antolatu jaietan gutxiago erabiltzen diren eremu edo momentuetan (erreka, inguruko mendiak, probak gauzez egin...)	Kirol saila		Gazteria saila	2023

**HELBURUA 3.1.3.** Jaietan genero estereotipoak hausten dituzten pertsonak edota ekintzak ikustarazi eta balioan jarri.

<b>A_</b> Jaien aurretik, Tolosako Ataria edo beste hedabidei Tolosako genero estereotipoak hausten dituzten emakumeak elkarrizketatzea proposatu (musikariak, kirolariak...).	Komunikazio saila	Berdintasun saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>B_</b> Festetako euskarri komunikatiboetan erabiltzen den iruditegian genero rola hausten dituzten irudiak erabili. Hau da, festetako jarduera maskulinizatueta emakumeen irudiei lehentasuna ematea (Adibidez, gaueko kontzertuetako emakume musikariak, suan salto egiten, kirolean...) eta jarduera feminizatueta gizonen irudiak sartzea (haurrekin, zaintza-jarduerak...), emakumeen aniztasunaren aldeko irizpideak ahaztu gabe (adina, jatorria, eta abar). Halaber, helburua da gai honetan egon daitezken beste genero adierazpenei (ez bitarrak) lekua ematea.	Komunikazio saila	Berdintasun saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_</b> Aztertutako helburu hauek beteko dituen komunikazio eraginkor baterako bideak.	Komunikazio saila		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>D_</b> Musika-programazioan berdintasun-irizpideak aintzat hartzen jarraitzea	Berdintasun saila			2021-2024

## ARLOA 3.2. Tradizionalki feminizatuta egon diren jarduera eta esparruak ikustarazi eta emakumeen rola balorean jarri, herriari eta komunitateari egiten dioten ekarpena aldarrikatuz eta horiekiko ardura kolektiboa sustatuz

**HELBURUA 3.2.1.** Tolosako emakume desberdinek herriari eta gizarteari egindako ekarpenak ikustarazteko ekimen desberdinak garatzea

<b>A_</b> Jaietan haurrentzako jolas edo probak (Altxorraren bila, Ginkana, ...) egin Tolosako emakume esanguratsuak ikustaraziz (probetan haien inguruko galderak, emakumeentzat garrantzitsuak diren espazioak...)	Berdintasun saila / Gazteria saila	Jaiak saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>B_</b> Jaietako omenaldi ezberdinetan emakumeak omentzea jarraitzea eta joera hau bultzatu, arrakal historikoa orekatzeko.	Jaiak saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>C_</b> Inauterietako karroza eta konpartsen Berdintasun Sariarekin jarraitu eta bere eragina eta ezagutza zabaldu.	Jaiak saila / Berdintasun saila	Komunikazio saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>D_</b> Gehien bat emakumez osatutako herriko taldeak jaietan parte hartzera edo ekintzak antolatzen animatu, emakume eredu anitzak ikustaraziz.	Berdintasun saila / Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024

### 3.3. Orain arte Tolosan jaiak berdinzaleak izateko eman diren aurrerapausoak ikustarazi, egindako ibilbidea balorean jarri eta aldarrikatuz

**HELBURUA 3.3.1.** Udalak jaietan zehar egiten dituen mezu eta agerraldi publiko guztietan jaiak berdinzaleagoak izatearen inguruko konpromisoa berretsi eta ordu arte egindakoaren berri ematea.

<b>A_ Udalak jaietan komunikazio berdinzalearen alde egiten dituen praktika on guztiak identifikatu eta hauek barne zein kanpo mailan balioan jarri kanpora begira eredugarriak izateko.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022
<b>B_ Urtero, jaien inguruan udaletik edo herritarren eskutik datozen berdintasunaren aldeko neurri eta ekintza berri guztiak komunikatu udalaren informazio euskarri desberdinetan (sare sozialak, aldizkariak, jaietako programan edo bestelako euskarrietan).</b>	Komunikazio saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_ Udalak eta eragileen artean jaien berri emateko egiten duten agerraldi publikoan eraikitzen den irudi parekidearekin jarraitu.</b>	Jaiak saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>D_ Behatokiak urtero ateratzen dituen ondorioen berri eman.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024

**HELBURUA 3.3.2.** Jaietan parte hartzen duten eragileek edo herriko beste eragile batzuek jaiak berdinzaleagoak izan daitezen ematen dituzten pausoak sustatu eta balioa eman.

<b>A_ Udaletik euskarri bat (album/bideo/padel) sortu Tolosako jaietako eragileek azken urteetan jaiak berdinzaleagoak izateko ekintzak jasotzen dituen.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022
<b>B_ Jabetze eskolan emakume musikarien inguruko hausnarketak eta haietzako espazioak irekitzen, sustatzen jarraitu eta ikustaraztea.</b>	Berdintasun saila/ Jabetze eskola	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_ Inauteriateko Korporazio bufoan emakumeen parte hartzea erraztea eta babestea.</b>	Jaiak saila / Berdintasun saila	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024

### 3.4. Jaien inguruan egiten den komunikazio publikoak genero ikuspegia duela bermatzea

**HELBURUA 3.4.1.** Jaietako kartelak genero irizpideak betetzen dituela ziurtatu.

<b>A_ Kartel lehiaketako epaimahaia parekidea izango dela eta berdintasun teknikariek aholkulari gisa parte hartzen jarraituko dutela ziurtatuko dituen neurriak hartu praktika on hau egonkortzeko.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila /Kultura eta Jaiak sailak	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>B_ San Joan kartel lehiaketaren emaitzak sexuaren arabera jasotzea eta publiko egitea.</b>	Jaiak saila	Neurria / Esku Hartzea / Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024

**HELBURUA 3.4.2.** Jaietako egitarauak genero irizpideak betetzen dituela ziurtatu.

<b>A_ Jaietako egitarauari dagokionez, Komunikazio sailak Berdintasun arloarekin bi bilera egin: behin behineko programaren zirriborroarekin eta behin betiko programarekin. Horrela egindako lana gainbegiratu ahal izango dute eta bere aholkuak helarazteko aukera izango dute.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila	Jaiak Saila	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024
<b>B_ Irudi eta hizkuntza ez sexistaren inguruko irizpideak luzatzen jarraitu Jaiak, Kultura eta komunikazioa arloei. Gaian formazioa beharko balitz hau identifikatu eta eskaini.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila / Kultura eta Jaiak sailak		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024
<b>C_ Egitarauko euskarria egiten duen enpresa kontratatzeke baldintzen artean berdintasun irizpideekin jarraitu eta ahal den einean hobetu.</b>	Gobernantza eta komunitate saila	Berdintasun saila	Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

### 3.5. Jaiak sostengatzeko beharrezko den zaintzaren etika eta praktika Tolosako jai ereduan txertatu

**HELBURUA 3.5.1.** Jaietan ere zaintza lanak beharrezkoak direla eta zaintzaren etikaren gaia lantzen hasia garrantzitsua dela sentsibilizatu.

<b>A_ Zaintzaren etika lantzen duen sensiblizazio kanpaina bat egin.</b>	Berdintasun saila / Komunikazio saila		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2024
<b>B_ Zaintzaren etikarekin lotuta sortzen diren gogoetei adi egon eta Tolosako jaietan "praktikara" eraman daiteken zerbait sortzen bada martxan jarri.</b>	Berdintasun saila		Hausnarketa	2024
<b>C_ Zaintzaren etikaren inguruko praktikan oinarrituko den gogoeta bat bultzatu.</b>	Berdintasun saila		Hausnarketa	2024





## 4. ARDATZA

## DENOK GOZA DEZAGUN, INDARKERIA

## MATXISTARIK GABEKO JAIK

Ardatz honetan indarkeria matxistarik gabeko jai batzuen alde pentsatu da. Jaiak, edozein indarkeria matxitatik egon beharreko espazioak eta momentuak diren heinean, hori lortzeko pausoak identifikatu eta diseinatu behar dira.

### ARLOA 4.1. Tolosako jaietan parte hartzen duten emakume desberdinek indarkeria matxista nola bizi duten ezagutu

**HELBURUA 4.1.1.** Tolosako jaietan ematen den indarkeria matxista azaleratu eta hobeto ezagutzea.

<b>A_</b> Jabetze Eskolatik abiatuta jaietako indarkeria matxistaren kartografa bat osatu herriko emakumeekin eta talde feministekin, jaietan nola, non, noiz eta nortzuk pairatzen duten indarkeria matxista ezagutu eta neurriak garatu ahal izateko.	Berdintasun saila / Jabetze eskola	Gizarte zerbitzuak / Gazteria saila	Informazioa bildu / sortu	2023
<b>B_</b> Inauterietako sexu erasoen barruko protokoloaren koordinazioa urtean behineko berrikusten jarraitu.	Berdintasun saila	Alkatetza /Gizarte zerbi. / Udaltzaingoa / Kom.	Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>C_</b> Protokoloan jasotzen diren erasoen aurrean, protokoloa aktibatzen jarraitu.	Berdintasun saila	Gizarte zerbitzuak	Neurria / Esku Hartzea	2021-2024

### ARLOA 4.2. Tolosako jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia eta tresnak garatu

**HELBURUA 4.2.1.** Tolosako emakumeek indarkeria matxistari aurre egiteko sareak, estrategiak eta proposamen herrikoak garatu eta martxan jartzea sustatu.

<b>A_</b> Protokolorako Mugimendu Feminista eta Tolosako Emakume Elkarteekin hasitako ibilbideari jarraipena eman, eta gaian elkarlanerako aukera berriak irekitzea.	Berdintasun saila	Berdintasun kontseilua	Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------	------------------------	------------------------	-----------

**HELBURUA 4.2.2.** Indarkeria matxistari aurre egiteko proposamen herrikoak sortu eta partekatu.

<b>A_</b> Herriko emakumeekin, talde feministekin eta gaian interesa duten bestelako eragileekin jai eremuetan gertatzen diren indarkeriei aurre egiteko estrategia eta neurriak proposatzea.	Berdintasun saila / Jabetze Eskola /Gazteria saila	Berdintasun kontseilua	Neurria / Esku Hartzea	2023
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------	------------------------	------------------------	------

**HELBURUA 4.2.3.** Jaietan parte hartzen duten herri eragileekin indarkeria matxistaren prebentzioa landu eta gai honetan haien inplikazioa lortu.

<b>A_ Tolosako tabernariekin eta txosnekin lanketa espezifikoak egin beraien lantokietan erasoak eta gai honetan adikzioek duten eragina identifikatzen laguntzeko eta horren aurrean zer egin jakiteko.</b>	Berdintasun saila / Ekonomi. sustapena, Merka., Feriak eta Turismoa / Gizarte zerbi.		Neurria / Esku Hartzea	2024
<b>B_ Gazteen arteko harreman sanoekin jarraitzeko sentsibilizazio programa txosnaguneko antolatzaileei, Jai bileretako kidei, Gazte eguneko koadrila antolatzaileari, eta abar eskaintzea, haiek antolatutako jardueretan kontutan izateko.</b>	Berdintasun saila / Gazteria saila /	Jaiak saila	Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022
<b>C_ Jai bileratan parte hartzen duten elkarteei indarkeria matxistaren gaia bere talde eta festa espazioetan lanketa eskaini, aholkularitza eta bidelaguntzaren beharra dutenak identifikatu.</b>	Berdintasun saila / Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea	2022-2024

**HELBURUA 4.2.4.** Urtean zehar Tolosan indarkeria matxistari aurrea hartzeko gauzatzen diren bestelako jardueratan eta programatan jaiak eta indarkeriaren gaia lantzen dela bermatu.

<b>A_ Tolosako gazteekin, musikaren bidez, hezkuntza ez-formalean indarkeria matxista lantzea proposatu.</b>	Gazteria saila / Berdintasun saila	Berdintasun saila	Neurria / Esku Hartzea	2021
<b>B_ Jabetze eskolan urtero gai honekin lotura duen jarduera bat antolatu.</b>	Berdintasun saila / Jabetze eskola		Neurria / Esku Hartzea	2021-2024
<b>C_ Gai hau beste arloetan txertatzeko aukera gehiago identifikatu.</b>	Berdintasun saila	Sail guztiak	Neurria / Esku Hartzea	2022-2024

## ARLOA 4.3. Indarkeria matxistaren aurkako mezu eta kanpainak mantendu eta ikuspegi ahalduntzailea indartu

**HELBURUA 4.3.1.** Indarkeria matxistaren gaia lantzeko adostutako estrategia komunikatiboarekin jarraitu.

<b>A_ "Tolosak, EZETZI!", "Joka sano!" eta "#LIBRENonahi!" bezalako kanpaina komunikatiboak egiten jarraitu.</b>	Kom. saila / Jaiak saila / Berdintasun saila / Gizarte zerbitzuak	Udal arloak zabalpean	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024
<b>B_ Indarkeria matxista eta eraso sexualen kontrako liburuxka berritu</b>	Berdintasun saila / Gizarte zerbitzuak		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2023
<b>C_ Indarkeria matxistaren aurkako kanpainen presentzia eta eragina handitu.</b>	Komunikazio saila / Jaiak saila		Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2023
<b>D_ Jai bileretan eta Ai-Laket elkarteak jaietan adikzioen programarekin batera indarkeria sexistaren euskarriak banatzen jarraitu.</b>	Jaiak Saila / Gazteria saila	Berdintasun Saila	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2021-2024

**HELBURUA 4.3.2.** Indarkeria matxistaren prebentziorako kanpaina eta mezuetan ikuspegi ahalbuntzailea indartu, emakumeek autodefentsarako dituzten gaitasun eta baliabideei garrantzia eta ikusgaitasuna emateko.

<b>A_</b> Jaietan gauzatzen den indarkeria sexistaren kontrako kanpainen autodefentsaren gaia txertatu eta gai honi lotutako mezuak zabaldu.	Komunikazio Saila / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2023
<b>B_</b> Inauterian Komunikazio arlotik enkargatzen den indarkeriaren aurkako bideoa denboraz landu Asanblada Feministarekin.	Komunikazio Saila / Berdintasun saila	Berdintasun kontseilua	Komunikazioa / Sentsibilizazioa	2022-2024



## PROPOSAMENEN KUTXA

Proposamenen kutxan (atal irekia da), Kutxa hau betetzen joateko ez dira irizpide itxiak erabili, aitzitik momentuko ezaugarri batzuen ondorioz erabaki da espazio hau sortzea; hau da, kasu batzuetan ekintza hemen jartzea erabaki da ekintza berak epe motzean izan dezakeen zailtasunagatik, beste batzuetan ekintza gauzatzeko behar diren sinergiak oraindik eraikiak ez daudelako, besteetan ekintzak izan dezakeen babesa nolakoa izan daitekeen ezagutzen ez delako, eta besteetan, ekintza aurrerakoiegia delako (ez ezinezkoa) bizitzen ari garen momenturako. Kutxa honen helburua planean dauden ekintzak agortzen doazen heinean hemendik ekintzak hartzea da, edo sinergi berriak eraikitzen diren neurrian hemen jasotzen diren ekintzak abiatzea, baita jendartea aurrera doan heinean ekintza aurrerakoiagoak egiteko moduan balego hauei heltzea...

Oraingoz, esan bezala, musika eta kirol arloko proposamenak jasotzen ditu batez ere. Hauek dira:

**ARLOA. Tradizionalki maskulinoak diren jardueretan dagoeneko emakumeak parte hartzen duten jarduerak antolatu, birformulatu, tresnak sortu eta balioan jarri, erreferenteak izan daitezten.**

### KIROLA

San Joanetan egiten den txirrindulari lasterketaren inguruko hausnarketa bultzatu, emakumeen parte hartzea bermatzeko. Adibidez, Txandakatu daiteke urtebete gizonen proba eta hurrengoan emakumeena.	Kirol saila	Jaiak saila / Berdintasun saila / Froga antolatzen duten enpresa edo sponsorrak	Neurria / Esku Hartzea
Jaiei begira Emakume pilotarien elkartearekin (EPE) elkarlanean jarraitu eta bere proposamenak gauzatzeko baliabideak jartzen jarraitu (hala nola emakume pilotarien finala)	Kirol saila	Jaiak saila	Neurria / Esku Hartzea
Emakume pilotarien gaian, jaien bueltan, Tolosa motorra bihurtzea.	Kirol saila		Neurria / Esku Hartzea

## MUSIKA

Batukada Feminista ordainketa jaietako partidatik ateratzea.	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea
Tolosaldeko eta Euskal Herriko Emakume musikari eta talde mistoen zerrenda eguneratua sortzea teknikariei eta jai batzordeari aukeraketa errazteko eta berdintasuna eta jaietako webgunean zintzilikatzea beste herrirentzako ere baliabidea izateko.	Berdintasun saila / Komunikazio saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa
Txupinazoaren ondoren jo behar duen edozein musika banda edo taldean emakume musikariak txertatzeko proposamena edo gomendioa eman.	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea
Txistularien bandako diana edo ekintzetan txistua jotzen duten neska ikasleei haiekin batera jotzera gonbidatu	Musika Eskola / Txistularien banda		Neurria / Esku Hartzea
Udal musika Eskolarekin batera, musika ezberdinen formazioa eskaintzeko prozesu bat abiatu eta emakumeen parte hartzea bereziki sustatzea.	Musika Eskola / Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea
Udalak jaietan emakume musikarien kontratazioa igotzeko hartutako neurriekin jarraitu eta neurri hauek beste eremueetara zabaldu, adibidez txosnagunera, beteak beste.	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea

## KULTURA

Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatzean ziurtatu genero irizpideak txertatuta daudela oinarrietan	Jaiak saila		Neurria / Esku Hartzea
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------	--	------------------------

## GUZTIAK

Jaietan ez ezik, jaietatik kanpo eragiteak jaietan isla izango duenez, urtean zehar hainbat jarduera ezberdin programatu musika eskolan, kirol elkarteetan, elkarte gastronomikoetan, ensaiatzeko gelak, etabar.	Berdintasun saila		Neurria / Esku Hartzea + Komunikazioa / Sentsibilizazioa
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------	--	----------------------------------------------------------

